



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak beste bi kontzertu sartu ditu bere programazioan: Silvia Pérez Cruz eta Luz Casal

- Bi kontzertuok 2023ko ikuskizunetara gehitzen zaizkie: **Silvia Pérez Cruz**, apirilaren 23an, eta **Luz Casal**, maiatzaren 1ean.

Bilbo, 2022ko abenduaren 19a. – Arriaga Antzokiak denboraldiko programaziora gehitu diren, eta 2023an egingo diren bi kontzerturen berri eman nahi du. Lehenengoa, ordena kronologikoan, **Silvia Pérez Cruz** da, apirilaren 23an izango dena. Ondoren, maiatzaren 1ean, **Luz Casal**en txanda izango da. Arriaga Antzokiak, beraz, Espainiako eszenako bi artista handi ekarriko ditu, bi kasuetan lan berriak argitaratu ondoren agertuko direnak.

Silvia Pérez Cruz azken bi hamarkadetan musika eszenan sartu den ahots pertsonalenetako bat da. Abeslaria izateaz gain musika egile ere bada, eta oso gaztetik hitz egiten du musikaren hizkuntza, izan ere Iberiar eta Latinoamerikako abesti ezagunen artean hazi zen, eta klasikoan eta jazzean hezi zen. Flamenkoak kutsatuta naturaz gaindikoa dirudien konexio baten bidez, berea baino ez den moduan abesten du, modu zirraragarrian. Ezinezkoa litzateke Silvia Pérez Cruz estilo bakarrean enkoadratzea. Polifazetikoa eta pertsonala da. Apirilaren 23an, jorratzen dituen estilo ezberdinei leial izanik, bere burua izateari inoiz utziko ez dion artista handi horietako bat izango da Arriaga Antzokian.

Eta, dudarik gabe, nortasun propio hori, zigilu berezi hori, Luz Casal ere definitzen duen zerbait da. Ez du etiketetan sinesten. Hortik bere aldakortasuna: estilo bakoitzak, musika-genero bakoitzak bere momentua, bere emozioa, bere sentsazioak ditu. Musikan erreferente den bakarlaria, zeinaren esangurak kultur esparrua gainditu duen. Bere abestiak neke handiz landuak, zizelkatuak, leunduak, berridatziak eta musikatuak dira, azken arnasa eman eta libre utzi aurretik, bakoitzak bere erara entzuteko. 90eko hamarkadatik gaur egunera arte, arrakastaz betetako bere erreperitorio zabalak Luz nazioartean txalotua izatea eragin du, Espainiako musikako emakume ahots garrantzitsu eta adierazgarrienetako bat bezala. Maiatzaren 1ean, gau berezia Arriaga Antzokian.

Sarrerak salgai

Luz Casal-en kontzerturako sarrerak jada salgai dira www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian. Prezioak 30 eurotik 68 eurora bitartekoak dira.

Silvia Pérez Cruz-en kontzerturako sarrerak bihar asteartean jarriko dira salgai, salmentarako bide berdinen bitartez, eta prezioak 30 eurotik 48 eurora bitartekoak izango dira.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus